



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
BIZKAIA

KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK



EHAEOren Bizkaiko Ordezkaritzak **BIA Urban Regeneration Forumen V. edizioa** martxan jarri du 2022. urtean (<https://biarchitecture.org/>).

Aurtengo edizioan ere «Territorios 2030 Lurraldeak» izenburu orokorrari eutsiko dio, eta oinarri izango du NBERen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako 10. Helburua eta Euskadi-Basque Country 2030 Agendarena: hain zuzen ere, «DEBERDINTASUNAREN ERRONKA» izena du edizioak, eta lurraldeen barneko eta lurraldeen arteko desberdintasunak murrizteari buruz jardungo du.

Eztabaida-ildoek bi erronka izango dituzte ardatz:

1. Berroneratu beharreko hiri-inguruneen maila handiko erronkak: “Hiria desberdintasunei aurre egiteko birpentsatzea: auzoen berroneratzea.”
2. Landa-arloaren, despopulazioaren eta lurralde-kohesioaren erronka: “Gaur egungo arkitekturaren erronka landa-eremuaren testuingurura hurbiltzeko.

BIA Urban Regeneration Forumek bi motatako jarduerak biltzen ditu: batetik, **BIA Biltzarra**, azaroaren 9, 10 eta 11n, eta, bestetik, **BIA Herritarrentzako Jarduerak**, hurrengo hilabeteetan egingo direnak.

Deialdi honen xedea BI JARDUERAK IRAGARTZEKO KARTELEN DISEINURAKO LEHIAKETA da. Honako oinarri hauek arautuko dute lehiaketa:

1. **Lehiaketa hau herritar guztientzat irekia da**, eta, hala, adinez nagusi den edonork parte hartu ahal izango du bertan.
2. **Lehiaketara aurkezten den parte-hartzaile edo unitate bakoitzak (izan banakoa nahiz taldea) obra bakarra aurkeztu ahal izango du; obra horrek jatorrizkoa eta argitaragabea izan behar du** (aurreko edizioetan edo beste lehiaketa batzuetan aurkeztu gabekoa

izan behar du, eta ezin du eduki egile eskubideek babestutako inongo obrarik ez partzialki ez osorik erakusten duen erreproduziorik).

3. Parte-hartzaile bakoitzak **kartel bat aurkeztu behar du, haren bi bertsiotan**: bertsioetako bat izango da **BIA 2022 BILTZARRA** iragartzeko, eta bestearekin iragarriko dira **BIA 2022 HERRITARRENTZAKO JARDUERAK**. Horrenbestez, bi kartelek elkarrekiko koherentzia izan behar dute, eta diseinu-batasunaren ideari jarraitu behar diote.

4. **KARTEL** guztiek honako **ELEMENTU OROKOR** hauek izan behar dituzte:

- [BIAren logoa](#) *
- EHAEOn [Bizkaiko ordezkariaren logoa](#) *
- [BIA V. edizioaren goiburua](#) *

*ESKLUSIBOKI ematen da logo hauek EHAEOn Bizkaiko Ordezkaritzak antolatutako lehiaketa honetan parte hartzeko erabiltzeko baimena, eta ezingo dira erabili beste inongo xedetarako. Parte-hartzaile bakoitzak erabakiko du logoak konposizioan non eta zer tamainatan kokatu.

- Aurtengo edizioaren izenburua, “2030 lurraldeak: Desberdintasunaren erronka” euskaraz eta gaztelaniaz (ikus itzulpen ofizialak <https://biarchitecture.org> webgunean).

5. **BILTZARRAREN V. EDIZIOA** iragartzeko kartelak honako **ELEMENTU BEREZI** hauek izango ditu, aurrekoez gainera:

- Jardueraren izenburua, “Urban Regeneration Forum” eta “BIA Topaketak”, euskaraz eta gaztelaniaz (ikus itzulpen ofizialak <https://biarchitecture.org> webgunean).
- 2022ko azaroaren 9an, 10ean eta 11n egingo den jardueraren datak euskaraz eta gaztelaniaz (ikus itzulpen ofizialak <https://biarchitecture.org> webgunean).
- Krokis bat atxikiko da, adieraziz non ezarri behar den Biltzarraren Egitaraua, zeinetan agertuko baitira ponentzien izenburuak, hizlariak, datak, eta ordutegiak. Horretarako, aurtengo edizioaren egitasmoa har daiteke oinarri gisa, <https://biarchitecture.org/wp-content/uploads/2022/03/folleto-bia22.pdf>, baita aurreko edizioaren egitaraua ere (aurrekoak bi eguneko iraupena soilik izan zuela kontuan hartuta, <https://biarchitecture.org/wp-content/uploads/2020/11/bia20-folleto.pdf>).

6. **HERRITARRENTZAKO JARDUERAK** iragartzeko kartelak honako **ELEMENTU BEREZI** hauek izango ditu, aurreko elementu orokorrez gainera:
 - Krokis bat atxikiko da, adieraziz non ezarri behar den Biltzarraren Egitaraua, zeinetan agertuko baitira ponentzien izenburuak, hizlariak, datak, eta ordutegiak. Horretarako, aurreko edizioaren egitaraua har daiteke oinarri gisa (aurrekoak bi eguneko iraupena soilik izan zuela kontuan hartuta, <https://biarchitecture.org/wp-content/uploads/2020/11/bia20-folleto.pdf>).
7. **Lehiaketa irabazten duen KARTELEAN agertuko dira**, lehiaketaren gaineko epaiaren ondoren eta Ordezkaritzak BIA 2022ko behin betiko edukiak zehaztu ondoren, **BILTZARRAREN behin betiko egitaraua eta BIA 2022 HERRITARRENTZAKO JARDUERENA**. Lehiaketaren irabazleak konpromisoa hartzen du jatorrizko diseinua abiapuntu hartuta egin beharreko egokitzapenak egiteko, hala behar izanez gero; baita aurreko bi puntuetan aipatutako behin betiko programak kartelean txertatzeko ere. Orobat hartzen du hedabideetan haien publizitatea egiten laguntzeko konpromisoa.
8. Obrak **formatu digitalean** aurkeztu behar dira (**jpg**). **DIN-A1 tamainako kartela, bertikala, 300 ppp-ko** bereizmenarekin.
9. **Obrak bide elektronikotik jasoko dira**, honako helbide elektroniko honetan: info@biarchitecture.org. Mezuaren gain hau adierazi beharko da: BIAren V. edizioko kartel-lehiaketa. Parte-hartzaile bakoitzak LEMA bat aukeratu behar du bere proposamena identifikatzeko. Mezu elektronikoa, honako hauek atxiki behar dira:
 - 2 artxibo, kartelen irudiekin, goian adierazitako formatuan (artxibo-izena: **lema-01.jpg**, Biltzarreko bertsiorako, eta **lema-02.jpg**, Herritarrentzako Jardueretarako)
 - PDF artxibo bat (artxibo-izena: **lema.pdf**), kartelaren egilearen izen-abizenekin, posta helbidearekin eta telefono-zenbakiarekin.
10. **Lanak jasotzeko epea 2022ko maiatzaren 31n amatuko da, eguerdiko 12:00etan**. Mezu elektronikoa jaso izanaren jakinarazpena iritsiko zaio lehiakide bakoitzari.
11. Honako **sari** hauek emango dira:
 - Bi aipamen, publikazio sorta baterako eskubidea emango dutenak.

- 500 €-ko sari bakar bat, eta kartela Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzak egoki irizten dien hedabideetan eta publizitate euskarrietan argitaratzea.
- 12. **Epaimahaia Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren bi ordezkari** osatuko dute, gutxienez.
- 13. **Epaimahaiak 2022ko ekainaren 10ean emango du epaia**, eta hurrengo egunetan jakinaraziko da, Ordezkaritzaren hedabideen bidez.
- 14. **Epaimahaiak eman gabe utzi ahal izango du saria**, baldin eta irizten badio ez dagoela lehiaketa irabazteko baldintza egokiak betetzen dituen obrarik.
- 15. Aurkeztutako obra guztiak erakutsi ahal izango dira Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzan edo BIAren espazioetan nahiz haien sare sozialetan eta webgunean. Orobat erakutsi ahal izango dira Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzarenak ez diren beste espazio batzuetan, betiere hura edo BIA ordezkatzuz, obren egilea aipatuta eta BIAren zabalkundea egiteko xedez.
- 16. Obra irabazlea ustiatzeko eskubide guztiak eta haren jabetza industrialaren eskubideak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko Ordezkaritzaren esku geldituko dira, zeinak izango baitu erabateko askatasuna obra osorik nahiz partzialki erabiltzeko edo eraldatzeko, beharrezkoa irizten dion unean eta moduan.
- 17. Behin proposamena igorritz gero, ezin izango da hura erretiratu.
- 18. Oinarri hauen gaineko argibideak eta informazio osagarria honako helbide honetan eskatu ahal izango dira: info@biarchitecture.org
- 19. Lehiaketan parte hartzeak hura arautzen duten oinarriak onartzea dakar.

Bilbon, 2022ko apirilaren 22an



Maricruz Gorostiza Emparanza

EHAEOko GOBERNU BATZORDEko Bizkaiko KIDEA

BIA 2022 IDAZKARITZA OROKORRA



**bilbao
bizkaia
architecture**